



**Sexismoaren eta indarkeria sexistaren  
prebentziorako gida**

**12-14 urteko gazteak**

**Gipuzkoako  
Foru Aldundia**



**ETORKIZUNA  
ORAIN**

**Izenburua:** Sexismoaren eta indarkeria sexistaren prebentziorako gida. 12-14 urteko gazteak.

**Egilea:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoa.

**Autorea:** Kalaka Koop. Elk. Txikia

**Lan-taldea:**

**Koordinazioa:** Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Organoa

**Gipuzkoako Foru Aldundiko partaideak:** Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Zuzendaritza eta Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritza.

**Adituak:** Kalaka, Emagin, Emun, Hezi2de eta Sortzen Consultoria.

**Diseinua eta maketazioa:** Kalaka

**APP-aren ekoizpena:**

**Ideiaaren sorrera eta koordinazioa:** Kalaka

**Garapena:** Lotura

# Aurkibidea

<b>1. HITZAURREA</b>	<b>4</b>
<b>2. KOKAPENA</b>	<b>5</b>
<b>3. ESKU-HARTZERAKO MARKO TEORIKOA</b>	<b>7</b>
3.1. Indarkeria sexista	7
3.2. Hezkidetza	7
3.3. Egiturazko dimentsioa	8
<b>4. INDARKERIA MATXISTAREN ESPARRU TEORIKOA</b>	<b>15</b>
4.1. Indarkeria matxista	15
4.2. Indarkeria sexista	16
4.3. Indarkeria sexistaren sozializazioa	17
<b>5. INDARKERIA SEXISTAREN PREBENTZIOA</b>	<b>20</b>
<b>6. PAUSSO APP-AREN AURKEZPENA</b>	<b>24</b>
6.1. Ezaugarri nagusiak	24
6.2. Funtzio nagusiak	24
<b>7. ESKU-HARTZE METODOLOGIA</b>	<b>29</b>
<b>8. ESKU-HARTZE METODOLOGIA GARATZEKO ARIKETAK</b>	<b>31</b>
8.1. Gaiaren aurkezpena	31
8.2. Errealitatearen azterketa	31
8.3. Hausnarketa sustatzeko galderak	37
<b>9. ARIKETAK LANDU OSTEKO ONDORIOAK</b>	<b>38</b>
<b>10. PAUSSO ERRONKA</b>	<b>41</b>
<b>11. JARRAIPENA EGITEKO METODOLOGIA</b>	<b>43</b>
11.1. Gaztetxoen jarraipena egiteko ebaluazio fitxa	43
11.2. Hezitzaileen jarraipena egiteko ebaluazio fitxa	44
<b>12. SAKONTZEKO EDUKIAK</b>	<b>45</b>



## Hitzaurrea

Pausso haur eta gazteekin indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko ekimen bat da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2019. urtean, Aurrekontu Irekiak ekimena jarri zituen abian, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren eskutik. Ekimen horren emaitza izan da hemen aurkezten den egitasmoa; izan ere, haur eta gazteekin indarkeria sexistaren prebentzioan aritzeko ikus-entzunezkoak egiteko proposamena hautatu zuten herritarrek.

Pausso ekimena gauzatzea erronka handia izan da, Covid-19aren izurritearen erdigunean, 2020 urteak izan dituen gora-behera guztiak kontuan izanda. Halere, Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Organoaren gidaritzapean, eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Zuzendaritza eta Hizkuntza Berdintasunerako Zuzendaritzaren elkarlanarekin, Pausso ekimena garatu da.

Paussook eduki egokiak zituela ziurtatzeko, emakume eta gizonen berdintasunean, indarkeria sexistaren prebentzioan eta ikus-entzunezko alorrean adituak diren hainbat pertsonarekin osatu du Aldundiak lan-taldea. Horien jarraibideak kontuan izanda, hauek dira Pausso ekimenaren ezaugarri nabarmenenak:

- Prebentzio goiztiarra lehenetsi da. Indarkeria sexistaren prebentzio lantzeko nerabeekin lanean aritzea da arruntena, horregatik gazteenentzako edukiak ekoizteko erronka hartu zen: 6-14 adin-tarteko haur eta nerabeak dira Paussoen hartzailleak.
- Garatze-une ezberdinetara egokitzen diren lau ikus-entzunezko ezberdin gauzatu dira: animaziozko bideo bat, 6-8 adin tarterako; bideo-joko bat, 8-10 adin tarterako; bideo bat, 10-12 adin tarterako; eta mugikorrarentzako aplikazioa bat, 12-14 adin tarterako.
- Ikus-entzunezko guztiek haur eta gazteekin lan-dinamikak gauzatzeko tresna bat izan nahi dute, horregatik, hain zuzen ere, egin da irakurtzen ari zaren gida hau.
- Azkenik, Pausso ekimenak, indarkeria sexista lantzeko ikuspuntu feminista du oinarri, horrek esan nahi du, indarkeria sexista emakumeen eta gizonen arteko egiturazko desberdinkerian kokatzen dela. Beraz, indarkeria sexista prebenitzeko, egitura horiek, rolak eta estereotipoak desikasi egin behar dira eta eredu berriak ikasi.

Eredu berri horiek eraikitzen pausoak emateko abiarazi da Pausso, Gipuzkoako herritar guztien eskura.



## Kokapena

6 urtetik 14 urte bitarteko gazteengan indarkeria sexista prebenitzea da Pausso proiektuaren **helburua** eta horretarako hezitzaileei baliabide egokiak eskaintzea. Gida hau adin tarte honetarako sortutako ikus-entzunezkoa landu eta gaia bere osotasunean garatu ahal izateko baliabide lagungarria da. Hori dela eta, indarkeria sexista ulertzeko oinarriaren azalpen teorikoa izateaz gain, bere prebentzioan esku-hartzeko metodologia ere azaltzen da.

### Paussoren helburu zehatzak:

- Sexismoaren eta indarkeria sexistaren gaineko sentsibilizazioa lantzea.
- Gazte eta hezitzaileei indarkeria sexisten egoerak identifikatzen laguntzeko tresnak eskaintzea.
- Sexismoaren eta indarkeria sexista egoeren prebentziorako aholkuak ematea.

### Paussoren esanahia:

Indarkeria sexista prebenitzeko proiektua izanik hau, ekintzara bideratuko zuen zerbait behar zuela argi zegoen, hori dela eta, Pausso izena jarri zaio.



**Pause + so = Pausso**



**Pause + so + pauso** hitzak batuta sortu da ikonografia. Izan ere, egoera sexistei aurre egiteko lehendabizi gelditu egin behar da, *-pause* egin-; aurre egin ahal izateko hausnarketa garatu *-so* egin- eta, azkenik, prebentzioaren bidea elkarrekin jorratu, hau da, pausoa eman.

Irudiari dagokionez, pausoari gazteek erabili ohi dituzten oinetakoen zola koloretsu eta alaien diseinua jarri zaio, eta *pause* ikurraren eskuineko lauki bertikalari legokiokeena baino pixka bat aurrerago kokatu dugu, pausoa ematearen ekintza aktiboa irudikatzeko. Aldi berean, “p” hizkia ere badenez, bi elementuak batuta daude.



## Esku-hartzerako marko teorikoa

### 3.1. Indarkeria sexista

Indarkeria sexista “*emakumeek bizitzaren eremu ezberdinetan jasaten duten egiturazko ezberdintasun egoeran ditu erroak. Desberdintasun horri gizartean eta familian sexuaren arabera egindako zereginen eta arduren banaketa tradizionalak eusten dio, banaketa horrek emakumeak gizonen azpitik jartzen baititu. Emakumeen aurkako indarkeria ezberdintasun horren beste isla bat da, ziurrena larriena dena, baina horrez gain, gizartea kontrolatzeko funtsezko tresna da, ezberdintasun egoerari eutsi eta iraurarazi egiten baitio<sup>1</sup>”.*

Indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko, beraz, lehenik eta behin, duen egiturazko dimentsioari heldu beharko diogu, eta, bigarrenik, indarkeria sexistaren ezaugarriak, formak eta eremuak ezagutu.

### 3.2. Hezkidetza

Hezkidetza ez da baliabide estrategiko bat, marko bat da, berdintasunera heltzeko hezkuntzako erantzun antolatu bat. Berdintasuna ikasi behar da, baina berdintasun eza des-ikasiz, berdintasun gabezia hori ezabatzeko lan egin beharra baitago. Sistema patriarkala desagerrarazi eta indarkeria jasaten duten neskei eta emakumezkoiei sostengua eman behar zaie. Garrantzitsua da femeninoa bigarren mailakoa ez dela azaltzea, horren balioa azpimarratuz eta eredu berriak erakutsiz. Egoera hau kritikaren bidez landu dugu orain arte, baina alternatibarik ere eman behar dira, ez da lantzen nola izan gazte, neska edo mutil, eredu sexistetatik at. Hezkidetzak berdintasunerako eremuan hezteko espazio bat proposatzen du.

Eredu berriak proposatu behar ditugu, indibidualki nola izan, baina baita kolektiboki nola izan ikusi ahal izateko ere. Berdintasuna maneiatzen ikasi egin behar da, eta ez da erraza, aurretik berdintasun ezaz ikasitakoa des-ikasi behar delako. Pertsona bakoitzak bere prozesua egin beharko du bizitzea tokatu zaionaren arabera, eta horretan gaitzeko baliabideak eman behar dira.

---

<sup>1</sup> [Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa](#)



### 3.3. Egiturazko dimentsioa:

#### ***Berdintasunean bizi garela uste duzue?***

#### ***Lanean, familian, eskoletan, kalean, politikan, legearen aurrean...?***

Erantzuna ezezkoa da, ez, ez gara berdintasunean bizi. Zorionez, aurrerapausoak ematen ari gara denon artean. Baina, indarkeria matxistaren eraginez emakumeak eta genero nahiz sexualitate arautik kanpo kokatzen diren pertsonen jasaten duten egoera onartezina da eta horri aurre egiteko ezinbestekoa da gaztetatik gaiaz hitz egin eta egoerari aurre egiteko baliabideak landu eta praktikan jartzea.

Nola sortzen da desoreka sozial hori? Herrialde gehienetan errotuta dagoen sexu-genero-sexualitate sistemaren bitartez.

#### ***Gizarte antolaketaren oinarria da sexu-genero-sexualitate sistema***

- **Sexu** kontzeptuak gorputzak dituzten genitalen arabeko desberdintasun anatomiko, kromosomarenak, hormonalak eta fisiologikoak adierazten ditu. Baina, ezberdintasun eta konplexutasun horiek guztiak, genitalen itxurara murriztuak izan dira, bi sexu mota dituen sailkapen sozial bat eratuz: arra eta emea. Horri sexu sistema bitarra deritzo, sistema horretan har edo eme ez diren beste sexu-espresio guztiak baztertuak izango dira, esate baterako, intersexualak. Errealitate ezezagun eta ikusezin horrek, ustezko normaltasun bitarrari eustearren, erakusten digu sexua ere eraikuntza kulturala dela, eta ez gertaera biologiko hutsa.
- **Genero** kontzeptuak, gizarte bakoitzean ustezko sexu antolaketa bitar horri lotzen zaizkion eduki anitzak adierazten ditu; hau da: emakume edo gizon izateak gizartean duen esanahia, baita bien arteko harremana eta harreman hori gauzatzeko dauden botere/mendekotasun erlazio desberdinak ere. Sexu bitar ereduari lotzen zaizkion genero eduki horiek, hierarkikoak, dikotomikoak eta elkar-baztergarriak dira, hau da, maskulinoak botere posizioa izango du, femeninoak, ordea, mendekotasun posizioa; horregatik, femeninoa denak ezin du maskulinoa izan eta alderantziz.
- **Sexualitate** kontzeptuak, pertsona bakoitzari desiragarri zaion joera sexuala azaltzen du eta horrekin lotuta garatzen duen subjektibotasuna. Sexualitateak gizartea arautzen du, sexu-genero sistema bitar horri dagokion elkar-harremana finkatzen baitu: heterosexualitatea. Gainera, heterosexualitatearen baitan, emakumeen erreprodukzio ahalmena kontrolatzen da. Horregatik esaten da sexualitate normatiboa dela heterosexualitatea, alegia, gizon eta emakumeen arteko botere harremanak finkatzen dituelako. Heterosexualitateetik at dauden sexualitateak, ez normatiboak diren heinean, zigor soziala eta indarkeria pairatuko dute.



Jaiotzen garen momentutik sailkatuak izateko beharra du gizarteak, horrela, beste aukerarik ez balego, haurrak euren bistako genitalen baitan ar ala eme moduan sailkatzen dira. Sailkapen hori egin ondoren, dagokien generoari lotzen zaie zuzenean, era hierarkikoan, haurraren sentimendu eta desioak kontuan izan gabe, genero bakarra dagokio, maskulino ala femeninoa. Genero bakoitza antzeztu behar den pertsonaia moduko bat da, kulturaren baitan eraikia izan dena, eta pertsonaia hori esleitzen denean, bere baitan dauden portaerak eta funtzioak betetzeko obligazioa sortzen zaio jaioberriari. Era berean, heterosexuala izango dela aurre-ikusiko da, kontrakoa azaleratzen ez den arte.

Esperimentu sozial honen bitartez argi ikusten da generoaren zama zein barneratua daukagun helduok, eta genero-estereotipoak nola transmititzen diren belaunaldiz belaunaldi: [La mente en pañales](#).

**Desberdintasun** biologikoak **desoreka** sozial bihurtzen dira, izan ere, generoak ez dira parekoak kontsideratzen; genero maskulinoa femeninoa baino hobeto baloratzen baita. Ikusi dugun moduan, desoreka sozial hori *sexu-genero-sexualitate sistemaren* ondorio da; hau da: sexu-diferentzietatik abiatuz gizarteek sortzen dituzten jarduera, sinbolo, espektatiba, arau eta balore sozialen multzoen ondorio.

Baina, jakina da, lurralde bakoitzean aldatu egiten direla generoei esleitzen zaizkien jarduera, sinbolo, espektatiba, arau eta balore sozialak. Horregatik, azpimarratzen dugu, generoak eraikiak direla, eta interes berezia dagoela generoen botere-harreman hierarkikoa mantentzeko (izan ere, herrialde gehienetan genero maskulinoa baita gailentzen dena). Gizarte antolaketa honi, **patriarkatua** deritzo, eta gizarte patriarkatuetan gizonak dira erdigunean daudenak. Hau da, gizartearen egitura eta funtzio guztiak euren baitan sortu eta antolatzen dira eta, horrez gain, horien hitzak, pentsamenduak eta ekintzak dira gehien baloratzen direnak.

## **DESOREKA SOZIALAK NOLA ADIERAZTEN DIRA EGUNEROKOAN?**

### **1) Genero-arauak:**

Genero-arauak, gizonek eta emakumeek izan eta jokatu behar duten moduari buruzko ideiak dira. Arauak, gizarte edo komunitate batek une jakin batean genero bakoitzari esleitzen dizkion atributuei eta ezaugarri buruzkoak dira. Jarraibide eta itxaropen horietara egokitzen da, oro har, genero-identitatea eta une horretan bereziki gizartea, kultura eta komunitatea definitzen duen maila baten barruan ulertu behar da. Adin goiztiarretik barneratzen ditugun genero-arauek, sozializatzeko eta generoa estereotipatzeko arauen bizitza-ziklo bat sortzen dute.

## 2) Genero-estereotipoen bitartez:

Genero-estereotipoak emakumeen eta gizonen jokabideei buruzko ideien multzoa dira, kulturalki eraikiak izan direnak eta kontzientzia kolektiboan oso errotuta daudenak. Horren eraginez, emakumeengan eta gizonengan espektatiba desberdinak jartzen dira, eta nortasunaren eraketa sexuaren arabera mugatzen da. Aldi berean, ezarritako botere-harremanak legitimatzen dira, alderdi maskulinoari femeninoari baino balio gehiago ematen zaiolako. Binomio maskulino-femeninoari esleitzen zaizkion genero-estereotipo (elkarren osagarri) garrantzitsuetako batzuk hauek dira:

Maskulinitatearekin lotzen diren estereotipoak	Feminitatearekin lotzen diren estereotipoak
Kultura	Natura
Logika	Emozioa
Indar-fisikoa	Ahulezia fisikoa
Independentzia	Dependentzia
Aktibotasuna	Pasibotasuna
Ausardia	Lotsa

## 3) Genero-rol tradizionalen bitartez:

Genero bakoitzari esleitzen zaizkion rolak zein diren errepikatzen zaizkio haurrari jaiotza momentutik, eta bere patua gizartearen sinesmenek markatzen dute. Pertsona bakoitzak bere ibilbide propioa sortzeko mugak jasotzen ditu txikitatik, eta muga horien baitan joaten da eraikitzen bere bizitza.

Maskulinitatearekin lotzen diren rolak	Feminitatearekin lotzen diren rolak
Bere ibilbide pertsonal eta profesionala garatzea da garrantzitsuena	Ondoan dituenak zaintzea (haurrak, bikotea, adineko senitartekoa...) da garrantzitsuena
Etxetik kanpo lan egiten duena	Etxetik kanpoko lanaz gain, etxeke lanez arduratzen dena
Aisialdirako aukera duena (plazagizona)	Karga mentala eta zaintza ardurak dituen (etxekeandrea)
Ekintzak egiten dituen (ekintzailea)	Besteen ekintzen arabera (haurrak, bikotea, zaintzen duen adinekoa...), bere egitekoak antolatzen dituen

#### 4) **Genero-harremanen bitartez:**

Genero-harremanak emakumeak eta gizonak batzen dituzten gizarte-harremanak dira, eta horrek boterea, sarbidea eta sexuen baliabideen kontrola barne hartzen ditu. Arau sozialek eta kulturelek, oro har, emakumearekin edo sexu/genero arau tradizionalak betetzen ez dituztela uste dutenekin eta ohiko moduari lotutako gaitasun, trebetasun eta rolei balio gutxiago ematen diete. Horrek genero-harremanak, hierarkikoak eta desberdinak direla esan nahi du.

#### 5) **Sexualitatearen eredu normatiboaren bitartez:**

Bi genero soilik hartzen dituenek sistemak kontuan, bien arteko osagarritasuna bultzatzen du soilik. Hau da, bi genero daude eta bakoitzak bestearekin elkartuta soilik bizi daitezke. Emakume eta gizonak elkar osatzearen ideia dago sexu-genero-sexualitate sistemaren baitan; eta eredu honi heterosexualitatea deritzo. Baina, hau ez da planteatzen aukera moduan, arau moduan baizik (heteroaraua). Horrela bada, txikitatik jasotzen dituzte haurrek beste generoarekiko maitasun-loturetarako mezuak, eta haurrak hazi ahala, uste dute heterosexualitatea dela eduki dezaketen sexualitate joera ala desira bakarra.

Horrez gain, heterosexualitatearen barruan, maitasun erromantikoaren jokabidea da sustatzen dena. Emakumeei laranja erdia direnaren uste okerra transmititzen zaie, eta horrela, beren bizitzak gizon batekin soilik lortuko duela zentzua barneratzen dute. Gizonei, aldiz, euren aisialdia, nortasuna eraikitzea ala lagunekin egotea, emakume bikotekidearekiko harremana baino garrantzitsuagoa dela transmititzen zaie, eta horrela, pertsona independenteak direla barneratzen dute, besteak beste.

#### **Ondorioa:**

Faktore hauek betetzen dituzten pertsonak, “parametro normalen barruan” kokatzen dira, hau da, arauaren ala normalitatearen barruan. Eta faktore hauetakoren bat ala gehiago betetzen ez dituzten pertsonak, berriz, “parametro normaletik kanpo” kokatzen dira. Hau da, arautik kanpo.

Jokabideak “normal” eta “anormal” moduan kategorizatzea XIX. mendeaz geroztik eman diren eztabaida zientifikoaren bitartez finkatu dira, psikiatria sexologia edota medikuntza berak ezartzen dituzten normaltasuaren parametroak. Jakina da, gizartearen parte delako, zientzia ere androzentrista dela, hau da, gizona dela erreferentziazat hartzen den elementua, baloratzen dena eta gainera, bere baitan neurtzen dela guztia. Horregatik, garaian garaiko pentsamendu matxistak islatu dira zientziako ikerketa eta ondorioetan.

## **ZEIN DIRA AGENTE SOZIALIZATZAILE NAGUSIAK?**

Aurrez aipatu dugun moduan, genero-estereotipoek, rolek eta sexualitate eredu aratuak eragin handia dute norberaren identitatea eratzerakoan, hau da, generoetako batekin identifikatzeko prozesuan. Zeregin horretan, bitartekaritza-lana agente sozializatzaile nagusiek burutzen dute: familiak, hezkuntza formal eta ez formalak eta komunikabideek, besteak beste.

Identifikazio-prozesu hori ez da %100ean ematen; izan ere, ez dugu gure burua generoetako batekin identifikatzen milimetroz milimetro, eta, gauzak sexuaren arabera esleitutako ereduarekin bat ez datozenean, kontraesanak eta ondoezak sortzen dira.

### **Nola sozializatzen dituzte agente horiek eredu normatiboak?**

#### **1) Familia:**

Feminismoaren aurrerapenei esker, gaur egun familia ereduaren aniztasuna ikusgarriagoa da.

Nolanahi ere, familia nuklear heterosexualak (aita, ama, alabak eta semeak) erreferentziazko ereduak dira eta gure gizartean pisu handia izaten jarraitzen dute. Bertan, emakumeek etxeko kudeaketaren eta zaintza lanen erantzukizun osoa izan ohi dute, etxetik kanpo ere lan egin arren; gizonek, etxetik kanpo ekoizpen lanak egiten dituzte eta zaintza lanen bat, etxeko kudeaketaz arduratu gabe.

Lan banaketa honek, emakumeen eta gizonen balorazio desberdindua betiketzez gain, mezu esplizitu (hitzen, ekintzen, zigorren eta sarien bidez) eta inplizitu (maitasuna, jostailuak, opariak, laudorioak erakusten dituenak) desberdinak eraikitzen ditu. Horrek mutilen jarrera maskulinoak (etxeko lanetan erantzukizun txikiagoa izan behar dute, etxetik kanpoko hedapena bultzatu behar dute) eta nesken jokabide femeninoa (zainketa bultzatu, etxeko erantzukizun gehiago eman, edertasunean oinarritutako mezuak igorri, gizonezkoen onespeneraren bilaketa normalizatu) helarazten ditu.

#### **2) Hezkuntza formala eta ez formala:**

Irakasle eta hezitzaileengandik **tratu ezberdindua** jaso ohi dute haurrek, euren sexuaren arabera. Horrela, idazketarako eta txukuntasunerako exijentzia gehiago izaten dituzte neskek, mutilek baino. Izan ere, uste da, genero-estereotipoengatik, neskek saiatuagoak direla, pasiboagoak eta esanekeagoak. Mutilei, ordea, idazketarako eta txukuntasunarekiko gutxiago exijitzeak, ez die onik egiten, eta gutxiago saiatzea eta lanak ez hain zuzen entregatzea dakarkie. Honetaz gain, mutilak gehiagotan eta altuago hitz egiten dutela ikusi da eta irakasleek mutilen izenak gehiagotan esaten dituztela ahoz-goran, neskenak baino. Honek guztiak euren nortasunean eragin zuzena izaten du.

Espazio fisiko eta akustikoari dagokionez ere desberdintasunak ematen dira. Mutilek neskek baino espazio gehiago okupatzen dute aurrez aipatutako eremuetan. Ikastetxeetako patioetan era errazean ohar gaitzke honetaz: patio gehienetan futbol edo saskibaloizelaia egoten dira erdian eta orokorrean, mutilak izaten dira kirol hauetan gehien jokatzen dutenak eta neskek patioaren bazterretara bideratzen dituzte. Espazio gutxiago okupatzeaz gain, nesken jolasak ere diskretoagoak izatera bideratzen dira, gutxiago okupatzera, bigarren planoan egotera.

Horrelako jokabideekin, genero estereotipoak betikotuz, mutilak protagonistak izatera ohitzen dira eta neskek bigarren plano batean egotera, arreta deitu gabe.

### 3) Komunikabideak:

Komunikabideetan agertzen diren albisteen protagonisten generoa aztertzen badugu, gehiengo osoan gizonak direla ohartuko gara. Ildo horretan, Genero-berdintasunerako Europako Institutuak (EIGE) hau guztia berresten duten datuak eman ditu Europar Batasunari dagokionean:

- Emakumeak albisteen %26tan baizik ez dira protagonista; eta kasuen %10ean bakarrik dira emakumeak informazioaren xede nagusi.
- Informazio-estaldura egiten zaion emakume bakoitzeko, lau gizonekori egiten zaie.
- Pertsona adituei egiten zaien kontsultei dagokienez, %16 baizik ez dira emakumeak; eta ehuneko hori %10era jaisten da antolakunde edo kolektibo baten bozeramaile edo ordezkarien kasuan.

Aisialdiko edukiei dagokienez, pelikula, serie eta marrazki bizidun gutxi emititzen dituzte emakumeak protagonista dituenak, nortasun propioa dutena, eta maitasun ala inguruko gizonetaz hitz egiten ez dutenak.

**Bechdel testa** gainditzen duten oso ikus-entzunezko gutxi emititzen dituzte, alegia.

Bestalde, azpimarratu nahi dugun baliabide sozializatzaile nagusietako bat hizkuntza da. Izan ere, hizkuntza eta errealitatearen arteko harremana bikoitza baita: hiztunok errealitatea adierazteko darabilgu hizkuntza, baina aldi berean hizkuntzak errealitatearen ezagutza mugatzen du. Sozializazio prozesuan hizkuntzen erabilera sexista egin ohi da. Hau, generiko maskulinoa erabiliz egiten da genero ezberdinketa

**Bechdel testa** filmetan, komikietan, antzezlanetan eta beste kultura-produktuetan genero-desparekotasuna neurtzeko sistema bat da; Alison Bechdel-ek sortua. Hauexek dira testa osatzen duten baldintzak, eta hirurak bete behar ditu produktu kulturalak testa gainditzeko:

1. Filmean gutxienez bi pertsonaia emakumezko ateratzen dira.
2. Pertsonaia horiek behin behintzat elkarrekin hitz egiten dute.
3. Elkarrizketa horren gaia gizon bat ez den beste zerbait da (baldintza hau ez dagokio bikote erlazioari bakarrik: adibidez, aitari buruz diharduten bi ahizpek ere ez dute testa gainditzen).

Hiru baldintza horiek alderantziz jarriz gero, hau da, emakumeen ordezkari gizonak aplikatuz gero, ia film guztiek betetzen dituzte; aitzitik, emakumezkoiek ezarritakoak, harrigarria da zenbat filmek ez duten testa gainditzen.

egiten duten hizkuntzetan, eta euskarazko kasuan, berriz, emakumeak ikusezin bilakatzeko esapide eta hitzak erabiliz.

Zentzu horretan, hizkuntza ere sexu-genero-sexualitate sistemaz zeharkatuta dago, eta horregatik, hizkuntzaz izendatzen dugun eta transmititzen dugun errealitate oro, jaiotzako sexuak lehenengoz eta bigarren aldiz gizarteak esleitutako generoak bereizita, sailkatuta eta hierarkizatuta dago. Sexuak bereizteko eta hierarkizatzekeo prozesuari sexismoa deritzogu.

Sexismoak pertsonak eta pertsonen arteko harremanak lantzeko modua gidatzen du, hau da, sexu-genero-sexualitatearekiko dugun ikuspegiarekin jokatzten duten edo ez kontuan hartuta etiketatzen ditu, menderatze-mailetan kokatuz, beren jokabideak eta beraiek gaitzespena edo onarpena sortuz.

Indarkeria sexista prebenitu ahal izateko, norberak erreproduzitzen dugun sexismoaz jabetu behar gara, desikasi eta genero-estereotiporik gabeko pentsamendua, hizkuntza eta portaerak barneratu, gazteei ere hori helarazteko.

# 4

## Indarkeria matxistaren esparru teorikoa

Indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko beharrezkoa da indarkeria matxistaren marko orokorrean kokatzea proiektua. Horregatik, proiektuaren oinarriak finkatzen dituen esparru teorikoa azalduko dugu segidan, eta hurrengo puntuan, indarkeria matxistaren oinarria xehetasunez azalduko dugu.


### 4.1. Indarkeria matxista

Indarkeria matxista neska, emakume eta genero identitate ala sexualitate ez normatiboa duten pertsonen duintasuna, estimua eta osotasun fisiko nahiz mentala sistematikoki kaltetzen laguntzen duten ekintza guztiei dagokie. Hau horrela izanik, espazio fisiko eta sinboliko guztietan tradizioz esleitu zaizkien genero-eskemak apurtzen dituzten pertsonak paira dezakete eta normatiboa bilakatu den sistema iraunarazteko kontrol-mekanismo bezala erabiltzen da, mekanismo horiek intersexualak, transgeneroak, transexualak, homosexualak, lesbianak eta ohiko sexu-genero-sexualitate sistema birsortzeari uko egiten dioten emakume eta gizonak pairatuko dituzte.

Gizarte eta eremu-sozial guztietan agertzen da, baina, arraza, klase eta talde etniko jakin bateko kide izatearen arabera maila desberdinetan eta mekanismo desberdinen bidez ematen da. Bere helburu nagusia, “maskulinoaren” nagusitasuna indartzea, legitimatzea eta errepikatzen laguntza da, bai “femeninoaren” gainetik, baita bi kategoria horien barruan ez dauden genero-identitate guztien gainetik ere.


Indarkeria hau patriarkatuak ezartzen duen desoreka sozialaren adierazpena da, eta, era berean, egitura patriarkalaren jarraipena bermatzen duen tresna da. Hiru esparruren bidez gauzatzen da: **indarkeria sinbolikoa** (aurreiritziak eta iruditegi soziala sortzen dituena); **egiturazko indarkeria** (diskriminazioa bermatzen duten instituzio guztien bitartez ematen dena), eta **indarkeria zuzena** (materializatzen ala exekutatzen den zuzeneko indarkeriaren adierazpen guztiak biltzen dituena).





## 4.2. Indarkeria sexista

Indarkeria sexista emakumeak emakume "izateagatik" edo emakume moduan "sinbolizatuak" izateagatik pairatzen duten indarkeria da. Bere helburua, aurrez azaldu den bezala, sexu-genero-sexualitate sistemak sortzen dituen gizon eta emakumeen arteko botere-harremanak mantentzea da (gizonak emakumeengan gailenduz). Zentzu horretan, indarkeria sexista genero sozializatorako tresna bat da, bai pairatzen dutenentzat (emakumeentzat), baita eragiten dutenentzat ere (gizonentzat). Beraz, indarkeria sexista ez da sexu-genero-sexualitate segida apurtzeagatik gertatuko den indarkeria, segida horren ezaugarri bat baizik. Hau da, emakumeek ez dute euren rola apurtu behar indarkeria sexista jasateko, "emakume izatearen" ondorio bat izan daitekeelako zuzenean indarkeria sexista pairatzea.



Horregatik guztiagatik, indarkeria sexista bada indarkeria matxista (sexu-genero-sexualitate sistemaren segida mantentzeko funtzioa betetzen duelako), baina indarkeria matxista mota guztiak ez dira indarkeria sexista izango. Adibidez, homofobiaren kasuan, gizon homosexualek indarkeria matxista pairatuko dute, baina ez indarkeria sexista. Halere, homosexualak diren gizonen artean diskriminazio handiagoa bizi dute “afeminatuak” direnak (plumadunak). Izan ere, feminitateak, zigor gehiago izango du, eta balio-galera handiagoa. Errealitate hori trans-maskulino eta trans-femeninoekin ere errepikatuko da.

Horrez gain, kontuan hartu behar da, pertsona askok errealitate diskriminatzaile bat baino gehiago bizi dutela (**interseksionalitatea** deritzona). Hau da, adina, jatorria, egoera administratiboa, desgaitasuna edo aniztasun funtzionala, sexualitatea eta egoera ekonomikoa bezalako faktoreen arabera, pertsonak jasaten duten desoreka sozialak eta botere-harremanak elkar gurutzatzen dira.

## **INDARKERIA SEXISTAREN SOZIALIZAZIOA:**

**Indarkeria** jaiotzen garenetik ingurunearen eraginez ikasten den jokabidea da; ez da berezkoa; ez da naturala. Norberaren inguruak garaian garaiko ohitura eta jarraibide kulturalak irakasten dizkigu, eta hori da bakoitzaren haziera bideratzen duen faktore nagusia.

**Sozializazioa** bizitzarako beharrezkoak diren gaitasunak ikastean datza. Hau da, sozializazioaren bitartez, egitea onargarria dena eta ez dena ikasten da; bakoitzarengandik espero dena; onartuak izateko zein jokabide izan behar diren; eta arauak urratzean zein ondorio ala zigor jaso daitezken, besteak beste.

Sozializatzeko prozesuaren baitan indarkeriarekin lotutako **hiru ezaugarri garrantzitsu** ikasten dira:

- **Indarkeriaren naturalizazioa:**

Haur eta gazteek indarkerian oinarritutako harremanak naturalak direla ikasten dute. Izan ere, indarkeriazko jokabideak justifikatzeko joera zabaldua baitago: ezaugarri genetikoaren parte direla edota bere garapen ebolutiboaren parte direla argudiatuz (“ez duenez emozioak azaltzeko gaitasunik, lagunak jotzeko joera dauka”).

- **Indarkeriaren normalizazioa:**

Indarkeria kasuak horren ohikoak eta egunerokoak direnez, jokabide horiek jada ez dira arrotzak kontsideratzen eta pertsonekin edota harremantzeko moduekin identifikatzen dira (“elkar jotzen dutenek, elkar maite dute”). Bestalde, umeei txikitatuz ikusten dute indarkeria (marrazki bizidunetan, pelikuletan, helduekiko harremanetan, etab.), eta euren jolasaren parte bilakatzen dute.

- **Indarkeriaren erabilera eta ondorioak:**

Umeei indarkeria noiz eta noren kontra erabil dezaketen ikasiko dute, eta baita bere ondorioetatik nola ihes egin dezaketen ere. Neska-mutilak indarkerian oinarritutako estrategiak garatzera animatuko dituzte, munduan euren lekua zein den aldarrikatzeko mekanismo bezala.

Testuinguru honetan, txikitatik baita ere indarkeria sexista ikasten joaten dira, ez bere aldeko mezuak igortzen direlako, baizik eta indarkeriaren esanahi eta erabilera berezituak egiten direlako generoaren arabera. Hala ere, patroiz ezberdinak jarraitzen dituzte genero bakoitzak indarkeriarekiko harremanean:

- **Indarkeriarekiko erakargarritasuna:** mutilengan neskengan baino erakargarritasun-maila handiagoa pizten du. Gainera, normatiboa da gizonengan (naturalizat hartzen da gizonak agresiboak izan daitezkeela, eta justifikatu egiten da), eta neskengan berriz ez da onartzen hain erraz (ez maila berean ezta maila txikiagoan ere, ukatu egin baitzaie historikoki indarkeria erabiltzeko aukera, baita autodefentsa kasuetarako ere).
- **Indarkeriarekiko erantzuna:** mutilek indarkeriaz erantzutea zilegi dute (“mutilak horrela konpontzen dira”, “berehala lagun egiten dira”), eta neskek, berriz, indarkeriaz erantzuten badute beren kontra erabili ohi da jarrera hori. Neskengan espero dena txintxoak, goxoak eta sentiberak izatea da. Espero den hori apurtzen bada, hau da, feminitatearen estereotipoetatik ateratzean, zigor soziala etorriko da (“ze itsusia jartzen zaren horrela erantzuten duzunean”, “ze brutak zaren”). Neskei txikitatik agresibitatea erabiltzea ukatzen zaie, beraien barneko “indar” mota horrekin konexioa galtzen dute eta, gero, ez dute sinisten beraien burua defendatzeko gai direnik.
- **Indarkeriarekiko harremana:** txikitatik mutilen jolasak armak, gudak eta indarkerian oinarrituak izaten dira nagusiki. Nesken kasuan, berriz, zaintza lanak, etxeke lanak, eta apain egoteko jolasak.
- **Indarkeriarekiko gaitzespena:** mutilek ez diote indarkeriari dagokion dimentsioa ematen, hein handi batean, horiek direlako indarkeria sortzen dutenak (“ez da hainbesteko”, “broma bat zen”, “onartu behar duzu, hori baita normala dena”). Neskei, berriz, euren azalean pairatzen dutenez, indarkeriarekiko gaitzespen handiagoa sortzen zaie, nahiz eta askotan ez jakin indarkeria izendatzen eta egoera azaltzen.

Horregatik, indarkeria sexistaren prebentzioan lan egiteko ezinbestekoa da indarkeria hori identifikatzea, ez onartzea eta aurre egitea. Indarkeria motak izendatzen badira, ezagunak bilakatzen dira eta ondorioz, errazagoa da ez onartzea eta aurre egiteko estrategiak norberak eta taldean garatzea.

## INDARKERIA SEXISTA

Ageriko indarkeria	Indarkeria ikusezina
Irainak	Umilazioa
Oihua	Mespretxuak
Mehatxuak	Erruztatzea
Eraso fisikoak	Gutxiespena
Sexu-erasoa	Ignoratzea
Bortxaketa	Inbisibilizatzea
Erailketa	Umore eta txiste matxistak
	Hizkuntza sexista
	Kontrola
	Anulazioa
	Txantaia emozionala

### **INTERSEKZIONALIZATEA:**

Indarkeria sexistaren inguruko lanketa egitean, aipatutakoez gain, kontuan izan behar dira beste elementu batzuk: adina, jatorria, egoera administratiboa, desgaitasuna edo aniztasun funtzionala, sexualitatea, egoera ekonomikoa, eta abar luze bat. Elkar-gurutzatzen diren egoera horiek guztiak esperientzia propio bereiztuak sortzen dituzte, eta ezingo dira parekatu eta modu berean kudeatu indarkeria sexista pairatzen duen adin-txikiko neska baten bizipena, egoera administratibo ez erregulatuan dagoen emakume batena, desgaitasun intelektuala duenarena, edo arrazakeria pairatzen duenarena. Guztiak indarkeria sexistarekiko duten bizipena beste egoera horien bitartez zeharkatua egongo da, eta indarkeria sexistari aurre egiteko moduak ere ikuspegi interseksionala izan beharko du. Konplexutasun hori guztia kontuan hartzeari deitzen zaio **interseksionalitatea** kontuan izatea.

# 5

## Indarkeria sexistaren prebentzioa

Aurrez landu dugun guztia kontuan izanda, indarkeria sexistaren prebentzioa gauzatzea da hurrengo pausoa. Prebentzio prozesu honetan hiru eragilek hartzen dute parte (erasotzaileak, erasotuak eta hauen inguruneak), eta garrantzitsua da eragile bakoitzak dituen jokabideak aztertzea, onargarriak ez direla jabetzea eta prebentziorako estrategia indibidual eta kolektiboak eraikitzea.

Jarraian aurkezten ditugun taulak, aipatzen dugun honetaz jabetzeko baliabide egokia dira. Horren berri izateak, prebenitzeko baliabideak nondik bideratu behar diren jakiten lagunduko diete honetan dabilzan hezitzaile, guraso, irakasle, etab.ei. Indarkeria sexistaren nondik norakoak ulertuta taula hauen bidez, nola esku-hartu proposatzen da. Hau da, indarkeriarekin lotutako heldu eta gazteen jarrerak desikaziz, indarkeria sexista prebenitzeko aukerak handitzen joango dira.

## INGURUNEA

Ohikoak diren jokabideak:		Prebentziorako estrategia-aholkuak:	
Gazteak	<p>Eraso baten berri izatean ala zuzenean ikusten denean, inguruan dauden pertsonak ez dute gaitzesten ala ez diote aurre egiten.</p>	<p>Eraso baten berri izan ala ikusi duenak, horren berri emateko ala esku-hartzeko ardura hartu behar du. Bestela, erasotzailea babesten ariko baita.</p>	
	<p>Inguruko pertsonak ez direnez ausartzen esku-hartzera, gertaeraren larritasun-maila txikitzen laguntzen dute.</p>	<p>Gertaeraren aurrean sortzen den isiltasun-ituna hautsi behar da, eta horretarako, neska-mutilei laguntasunaren garrantzia irakatsi behar zaie.</p>	
	<p>Ez dago ohiturarik indarkeriazko gertaeren inguruan taldean eztabaidatzeko, ezta gaizki egin dela aitortzeko ere.</p>	<p>Indarkeriazko jarrerak beti aitortu behar dira, eztabaidatu eta dagokion ondorio (zigorra) ezarri. Baina, ez dira inoiz estigmatizatuko, gazteen ikasteko eta aldatzeko gaitasunean konfiantza izan behar baita.</p>	
	<p>Bi erresistentzia kultural ematen dira gazteen artean: 1) Arazoak laguntzarik gabe konpondu ditzakeela defendatzen duen ustea. 2) Salatari izatea erasotzailea izatea baino okerragoa denaren ustea.</p>	<p>Erasotzailea nor izan den ez kontatzeak indarkeriaren prebentzioa zailtzen du. Horregatik, hausnarketarako eta talde-eztabaidarako giroak sortu behar dira, indarkeria sexistaren inguruan hitz egiteko.</p>	

Ohikoak diren jokabideak:		Prebentziorako estrategia-aholkuak:	
Helduak	<p>Gaztea babesteko joera izan dezake helduak, eta, horren eraginez, bere jarrera bortitzari larritasuna ken diezaioke eta zigorra kendu ala arindu.</p>	<p>Indarkeriazko jarreraren ondorioek bat egin behar dute erasotzailearen adinarekin eta erasoaren neurriarekin, baina indarkeriak beti ondorioren bat izan behar du.</p>	
	<p>Egoera sexistei larritasuna leuntzea, isilik mantentzea eta ez salatzea dira prebentzioa lantzeko traba handienak.</p>	<p>Salataria izatea mina egiteko asmoz ez dago ondo, eta haurrei hori irakatsi behar zaie. Baina ikusitakoa, entzundakoa edo bizitakoaren gainean lagun dezaken pertsona bati kontatzeak, erasoak gelditzen lagun dezaketela esan behar zaie.</p>	
	<p>Erasotzaileaz eta erasoaz hitz egitea tabu bilakatzen da, eta eztabaiarako kultura ukatzen da. Berehala adiskidetzeko beharra sortzen zaie, barkamenak eskatu eta arazoa konponduta dagoela sinestaraziz.</p>	<p>Adiskidetzen eta berehala ahazten saiatu baino lehen, gertaera nola eman den aztertu behar da. Horrela, konpontze-prozesu guztiak ikasgai izango dira.</p>	

## ERASOTUA

Ohikoak diren jokabideak:	Prebentziorako estrategia-aholkuak:
Bakarrik sentitzen dira erasotuak izandako neskak edo gazteak. Horregatik, isilik mantentzen dute gertaera.	Taldeak erasotuarekiko babes talde bat sortuko du eta argi azalduko diote beti izango duela euren laguntza.
Gaur egun, indarkeria sexistaren inguruan hitz egiten denean, oso errotuta dago erasotuak gertatzen zaienaren erantzuleak direla edo euren jarrerarekin indarkeria hori eragin dutela defendatzen duen ustea.	Erasotuak bere burua defendatzeko eskubidea du, protesta egitekoa ala erantzutekoa. Eta helduak ez du prebentzioaren perspektiba galdu behar, defentsako jarrera erasoaren jarreraren parekotzat ala larriagotzat hartuz.
Biktima bat zer den arautzen duten aurreiritzien ondorioz, enpatia gal daiteke haserretu eta erantzuten duten biktimekiko.	Aurreiritziak berraztertu egin behar dira, eta argi izan behar da biktimak ez direla biktima bihurtu euren jarreragatik, norbaitek erasotu dituelako baizik.
Helduak ez du jakiten zein estrategia jarraitu erasotuari laguntzeko.	Helduak aitortpena, egindako minaren konponketa eta justizia egitea eskaini behar dio.

## ERASOTZAILEA

Ohikoak diren jokabideak:	Prebentziorako estrategia-aholkuak:
Erasotzaileari ez zaio gehienetan aurre egiten. Eta aurre egiten zaion kasuetan, indarkeria erabiltzeko joera dago.	Erasotzaileari aurre egin behar zaio, baina ez bere jarrera erreproduzitzuz; hau da, ez da indarkeriaren bidea erabiliko, adimena baizik.
Erasotzailearekiko errukitasuna izaten da.	Errukitasuna balore garrantzitsua da, baina horrek ezin du zigorgabetasunera bultzatu. Erasotzailearekiko errukitasuna nagusitzen bada, erasotuarekiko indarkeria bikoitza eragiten gabilta.
Indarkeria sexista eragiten duten erasotzaileak lidertzat hartzen dira.	Indarkeria sexista mota guztiak errefusatu behar dira denengandik eta jarrera oldarkorrek eguneroko harremanetatik ezabatu.



Aipatu diren ohiko jokabideak nonahi ematen dira, eta beraz, horren jakitun izanik, hauen prebentzioa lantzeko sentsibilizazio-plangintza bat egitea beharrezkoa da. Adin tarte bakoitzari egokitutako ariketen bitartez, gaia lantzea eta konstantzia batekin jarraipena egitea izango da prebentzioaren arrakasta bermatuko duena.

Hau horrela izanik, Pausso proiektuaren baliabide anitzak zure eskura dituzu, egokien datorkizun moduan erabiltzeko, hau da, adin tarte bakoitzari dagokion ikus-entzunezkoa eta gida (alde batetik, indarkeria sexistaren eta indarkeria matxistaren oinarriak azaltzen dituen formakuntza duena, eta bestetik, esku-hartzea egiteko metodologia praktikoa duena).

# 6

## Pausso APP-aren aurkezpena

### 6.1. Ezaugarri nagusiak

<b>Tipologia</b>	Mugikorrerako eta webgunerako app-a
<b>Helburua:</b>	Aisialdiko kultur baliabideen (liburuak, bideo-jokoak eta pelikulak) katalogo kolaboratiboa sortzea, sexismoa eta indarkeria sexistaren prebentzioa lantzeko zuzenki gazteekin.
<b>Kultur baliabideen azterketa egitearen arrazoa:</b>	12-14 urteko gazteak izanik, hartzaile taldea nerabezaroaren atarian dago: harreman pertsonalek (bai lagunekiko edota bikoteekiko) garrantzia handia dute euren burua kokatzen eta nortasuna finkatzen dabiltzan urte hauetan. Hori dela eta, harremanei buruz hausnartzeko, harreman mota anitzak ezagutzeko, aisialdiko euskarri kulturelek eskaintzen dituzten edukien azterketa hezkidetzaille eta feminista egiteari ezinbestekoa deritzogu. Ikusten dugunetik ikasten baita, eta ikusiko dutenaren gainean iritzi kritiko propioa eraikitzea oso garrantzitsua da adin honetan.
<b>App-eko profilen eskumenak:</b>	<p>Gazteen profila: gazteek eduki berriak sortu eta sortuta daudenen gainean balorazioak egin ahal izango dituzte. Euren anonimotasuna bermatuko da uneoro, datu pertsonalak ez baitira inon agertuko, soilik bere hezitzaileak jakingo du goitizen bakoitzaren atzean zein ikasle dagoen.</p> <p>Hezitzaileen profila: hezitzaileek eduki berriak sortu, sortuta daudenen gainean balorazioak egin eta bere gazteen edukiak moderatzeko eskumena izango du. Gazteen eduki eta balorazio guztiek hezitzaileen galbahea gainditu behar dute (hizkuntza eta espresio egokiak erabiltzen direla bermatuz). Hezitzaileek era berean, txosten bat deskargatzeko aukera izango dute, gazteek denbora konkretu batean argitaratu dituzten eduki eta balorazioen informazioa edukiko duena.</p>

### 6.2. Funtzio nagusiak

Aurreko taulan aipatu dugun moduan, aplikazioak bi erabiltzaile mota ditu: ikasleak eta hezitzaileak. Profil bakoitzak eskumen konkretu batzuk egiteko aukera dauka, eta bien arteko elkarlanaren bitartez, katalogoa osatzen joango dira.

### **Hezitzaileentzako gomendioa:**

Hezitzaileen kontua Pausso proiektuaren arduradunak onartu behar duenez, gazteekin landu nahi den lansaioa baino astebete ala bi aste lehenago egitea erregistroaren eskaera gomendatzen dugu.

### **IKASLEAREN PROFILA:**

#### **Ikaslearen kontua sortzeko urratsak:**

- 1) Mugikorreko aplikazioaren ala webgunearen bitartez, 'Kontua sortu' botoiari eman, eta 'Ikasle-kontua sortu' aukera sakatu.
- 2) Bertan agertzen diren lauki guztiak bete. Horretarako, hezitzaileak aurrez erregistratu behar du eta bere goitizena jaso behar du ikasleak. Bestetik, guraso ala legezko tutorearen datuak eskatzen direnez, eskura izan beharko ditu bere izen-abizenak, NAN zenbakia eta baita e-maila ere. Ikasle-kontua sortzeko, guraso ala legezko tutoreak baimendu behar du (e-mailaren bitartez ala hezitzaileak emango dion inprimitutako dokumentuaren bitartez).
- 3) Azken urratsa, hezitzaileak ikaslearen erregistro eskaera onartzea izango da.

#### **Ikasleak edukiak eta balorazioak sortzeko urratsak:**

- 1) Mugikorreko aplikazioaren ala webgunearen bitartez, 'Gehitu bideo-joko, liburu edo pelikula bat' botoia sakatuta eduki berri bat sortzeko galdetegia agertuko da. Bestetik, dagoeneko sortuta dagoen eduki batean sartuz gero, 'Idatzi zure iritzia' botoiari emanda balorazioa egiteko galdetegia agertuko da.
- 2) Galdetegia bete ondoren, hezitzailearen esku geratuko da edukia ala balorazioa gainbegiratzea eta onartzea.
- 3) Hezitzaileak edukia ala balorazioa onartzean, katalogoan argitaratuko da.

### Hezitzailearen kontua sortzeko urratsak:

- 1) Mugikorreko aplikazioaren ala webgunearen bitartez, 'Kontua sortu' botoiari eman, eta 'Hezitzaile-kontua sortu' aukera sakatu.
- 2) Bertan agertzen diren lauki guztiak bete.
- 3) Azken urratsa, Pausso proiektuaren administratzaileak hezitzailearen erregistro eskaera onartzea izango da.

### Hezitzailearen kontuan sartzeko urratsak:

- 1) Lehenengo aldiz hezitzailearen kontuan sartzeko, administratzaileak hezitzaile-kontua aktibatzen duenean iristen den emailean ematen den loturan zapaldu behar da. Horrela, hezitzaileak bere pasahitz propioa sortuko du.
- 2) Behin hezitzailearen pasahitza izanik, e-maila eta pasahitz hori erabiliko dira, 'Saioa hasi' botoia emanda agertzen den Hezitzailearen sarbiderako 'Sartu' botoia sakatzuz.
- 3) Hezitzailea kudeaketa-panelean sartuko da, eta bertatik, bere ikasleen erregistro eskaerak jasoko ditu (erabiltzaileak), ikasleek sortzen dituzten edukien eskaerak (edukiak), ikasleek sortzen dituzten balorazioen eskaerak (balorazioak) eta kudeatzen dituen taldeen informazioa ikusiko du (taldeak).



### Hezitzailearen panelaren menua:

Erabiltzaileak   Edukiak   Balorazioak   Taldeak   Erabilera arauak


- Menu nagusitik hezitzaile moduan kudeatu daitezken 5 eduki mota ezberdinetara sar zaitezke: Erabiltzaileak (ikasleak), Edukiak (kultur edukiak), Balorazioak, Taldeak eta Erabilera arauak.

Aukeratuak ezabatu    Datuak aldatu

- Aldaketaren bat egiten bada daturen batean, beheran dagoen 'Datuak aldatu' botoia sakatu behar da, datuak eguneratuta gordetzeko.
- Lerro bat baino gehiago aukeratu badira, guztiak batera ezabatzeko aukera dago 'Aukeratuak ezabatu' botoiaren bitartez.


 Inprimatu    Csv bezala esportatu

- Taulan agertzen diren datuak inprimatzeko aukera dago ala excel taula bezala ikustekoa.




- Hezitzaileak 'Erabiltzaile berria gehitu' botoiaren bitartez, bere kabuz sor dezake ikasle baten kontua.
- Taula bakoitzean zenbat lerro ikusteko aukera dauka '10 lerro orriko' botoiaren bitartez.
- 'Zutabeak ezkutatu' botoiarekin, berriz, taula pertsonalizatu dezake eta zutabe batzuk kendu.

### Erabiltzaileen taularen ikuspegia:



### Taldeak taularen ikuspegia:



## Ikasleen edukien kudeaketa egiteko urratsak:

### 1. Taldea/k sortu:

- 1) Automatikoki Taldea izeneko talde bat sortuko zaio hezitzaileari. Eta horrela, bere ikasleak zuzenean talde horretan sartuko dira.
- 2) Hala ere, Taldeak atalean, 'Sortu talde berria' botoiari emanez, talde berri bat sortu ahal izango du, eta bertan, talde berriari izen berri bat eman ahal izango dio (gaztelekuarena, adinarena, ordutegiarena...).
- 3) Ondoren, bere ikasleak taldera batuko ditu (horretarako, ikasleek gurasoen baimena izan behar dute -elektronikoki ala eskuz entregatutako dokumentuaren bitartez- eta hezitzaileak 'aktiboa' laukia aktibatuta izan behar du). Ikasle bakoitzaren fitxan (Erabiltzaileak taulan, ikasle bakoitzaren ezkerrean dagoen arkatzairen ikonoa sakatuz) ikasle horri talde berria esleitzeko laukia topatuko du (Taldea izena duena).

## 2. Ikasleen edukiak eta balorazioak kudeatu:

- 1) Ikasleek sortzen dituzten eduki eta balorazio berriak 'Edukiak' eta 'Balorazioak' ataletan eguneratuko zaizkio hezitzaileari.
- 2) Hezitzailearen ardura izango da eduki eta balorazio bakoitzak idazkera eta espresio egokiak dituela bermatzea. Horretarako, nahi dituen zuzenketak egin ditzake testuan, ala, baztertu ere egin dezake eduki ala balorazio konkretu bat.
- 3) Hezitzaileak ontzat ematen dituen eduki eta balorazioak, katalogoan publiko egingo dira. Horretarako, arkatza duen laukiari emango dio aldaketak egin nahi baditu, eta 'Aktiboa' laukia aktibatuko du argitaratu nahi badu.
- 4) Ondoren, 'Datuak aldatu' botoia sakatuko du datuak eguneratuta gordetzeko.

## 3. Ikasleen jarraipena egin:

- 1) Ikasle bakoitzak argitaratu dituen eduki eta balorazioen jarraipena egiteko tresna du hezitzaileak. Horretarako, 'Edukiak' eta 'Balorazioak' atalen azpian dagoen 'Inprimatu' botoia sakatzuz, bistaratzen duten taula pdf formatuan inprimitzeko aukera izango du.
- 2) Taula bakoitzean ikusten diren zutabeak aldatu nahi badira, berriz, 'Zutabeak ezkutatu' botoiaren bitartez egin ahal izango da.

## Esku-hartze metodologia

Sexismoa eta indarkeria sexista gazteekin lantzeko, esku hartze metodologia erabiltzea gomendatzen dugu, hau da, hezitzaile batek gidatzea gaiaren lanketa. Horretarako, atal honetan, esku-hartze metodologia garatzeko irizpideak eta urratsak azalduko ditugu, eta hurrengo atalean, urrats hauek garatzeko ariketa konkretuak proposatzen dira.

Esku-hartzearen helburua, gaur egungo errealitatea aztertzeko tresnak eskaintzea da eta, horien bitartez, jendartearen aldaketa bultzatzea. Aldaketa hori gauzatzeko gazteek sortzaile, kritiko eta parte hartzaile izan beharko dute, eurengandik atera behar baitute konponbideek.

Lau urrats hauek proposatzen ditugu esku-hartzea gauzatzeko:

### 1) **Gaiaren aurkezpena:**

Aplikazioa erabiliko denez, kultur baliabide bat bere gaiagatik aukeratuko da. Ondoren, gai nagusi horretaz galdetuko zaie taldean gazteei. Lehen urrats honen helburua, aukeratutako gaira hurbilpen bat egitea izango da. Helburua dagoeneko pertzibitzen dituzten eta erabat ezezagunak dituzten nozio batzuen gainean hitz egitea izango da.

### 2) **Errealitatearen azterketa:**

Behin kultur baliabidea ikusi, irakurri ala jokatu ostean, bertan atzemandako egoera sexisten inguruko azterketa egingo da taldean. Horretarako, taula bat izango da oinarrian, eta berau sakonki betetzeko, berriz, lau tresna eskaintzen dira: inbertsioaren araua, genero-estereotipoen zerrenda, genero-rolen zerrenda eta indarkeria sexista moten zerrenda.


### 3) **Hausnarketak eta eztabaidak:**

Kultur baliabidearen azterketa egin ondoren, gazteek argumentu gehiago izango dituzte, sexismo egoeren aurrean pentsatzen dutena adierazteko. Hausnarketa eta eztabaidak sustatzeko, hainbat galdera proposatzen dira, baina, hezitzaileak nahi beste galdera ala planteamendu egin ditzake gaiari estuago lotuta egongo direnak.



**4) Ondorioak:**

Azkenik, banakako eta taldeko hausnarketa eta eztabaiden ondorioak aterako dituzte. Alternatiba ezberdinak, ziurrenik, eta interesgarria izango da horiek guztiak biltzea. Ondorio horiek, aplikazioan kultur baliabide horren balorazio moduan jar ditzakete eta, beraz, balorazioek talde osoan eraikitako iritziak eta ikuspegiak bilduko dituzte.



12-14 urteko gazteekin indarkeria sexista lantzeko aitzakia kultura baliabideak dira, aurrez aipatu dugun moduan, aisialdian, baliabide desberdinen bidez jasotzen ditugun mezuek eragin zuzena baitute denongan. Hori dela eta, pelikulak, liburuak eta bideo-jokoak aztertzeko hainbat ariketa proposatzen dira jarraian, aplikazioa erabili aurretik eta ondoren gaiaren inguruan hausnartu ahal izateko. Horrela, kultur baliabideak aplikaziora igotzeaz gain, gazteak prest egongo dira kultur baliabide horien inguruko balorazioak egiteko, bertan ematen diren sexismo eta indarkeria sexista egoerak kontuan izanik.

## 8.1. Gaiaren aurkezpena:

Hezitzaileak aurre lan bat egin beharko luke lehenengo aldiz gaia taldean planteatu aurretik, gaia nola aurkeztu pentsatzeko. Horretarako, gaiarekiko norberak duen ezagutza maila zein den neurtu beharko du, eta informazio gehiagoren beharra duela ikusiko balu, dokumentatu egin beharko luke (kontsulta ezberdinak eginez baliabide digital edo analogikoetan).

Behin gaia aukeratuta, gazteen saioan proposatuko du, bai gaiaren aurkezpena eginez eta baita hori lantzeko aukeratu den kultur baliabidearena ere (liburua, pelikula ala bideo-jokoa).

Gaiaz gazteek duten iritzia ala iritzi ezak ezagutzeko galderak egingo ditu:

- 1) Zer dakizue gai honetaz?
- 2) Baduzue iritzirik? Ezagutzen duzue lehenagotik?
- 3) Nola ikusten duzue gaia? Nola deskribatuko zenukete?
- 4) Zein hutsune nabarmen azpimarratuko zenukete gai honen inguruan, zuen baitan, inguruan ala gizartean?
- 5) Zergatik ematen dela uste duzue?
- 6) Zein aurreiritzi ala uste dituzue gai honekiko? Eta zuen ingurunean? Orokorrean gizartean?
- 7) Gaiaren konponbiderako urratsak eman direla uste duzue, gizarte moduan, indibidualki...?

## 8.2. Errealitatearen azterketa:

Behin taldean gaia aurkeztu ondoren, ikus-entzunezkoa ikusi, irakurri ala jokatu da. Ondoren, ikus-entzunezkoan pertzibitu dutenaren azterketa kuantitatibo eta kualitatiboa egingo dute, sexismo ala indarkeria sexista egoerak zein neurritan eman diren aztertzeko.

Errealitatearen azterketa								
Kultur baliabideen zerrenda:	Neska-mutil kopurua		Zein da protagonista nagusia? (X batez markatu)		Sexismoa atzeman duzu?	Ikusi dituzun genero-estereotipoak aipatu	Zein da protagonistar en rol nagusia?	Ikusi dituzun indarkeria sexista egoerak izendatu
	Peikulen izenburuak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Bai/ez (1. tresna)	Zerrenda (2. tresna)	Zerrenda (3. tresna)
Liburuen izenburuak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Bai/ez (1. tresna)	Zerrenda (2. tresna)	Zerrenda (3. tresna)	Zerrenda (4. tresna)
Bideo-jokoen izenburuak	Neskak	Mutilak	Neskak	Mutilak	Bai/ez (1. tresna)	Zerrenda (2. tresna)	Zerrenda (3. tresna)	Zerrenda (4. tresna)

**Eta taula hori betetzen laguntzeko, segidan aurkezten dizkizuegu lau tresna:**

### **1) Nola identifikatu sexismo egoerak? Inbertsioaren arauaren bitartez.**

Kultur baliabide desberdinetan sexismoa identifikatzeko tresna egokia da inbertsioaren araua. Baliagarri izango zaizue testu bat, jarrera bat ala egoera bat sexista den ala egokia den frogatzeko. Inbertsioaren araua zera da, ikusten dugun egoera hori beste sexuko pertsonari aplikatuko geniokeen galdetzea geure buruari. Hau da, neskei bakarrik aplikatuko bagenie, ala mutilei bakarrik, hori sexista delako izango da (arraroa egiten zaigunean egoera hori bera beste sexuko pertsonari aplikatzea, alegia). Baina, neska ala mutilei, modu berean eta arraro iruditu gabe aplikatzerik balego, orduan, ez da sexista izango.

**Adibidea:** ipuin batean neskatila txikia panpinekin jolasten ageri da, eta bere anaia zaharragoa baloiarekin. Arraroa iruditzen bazaizu beste aldera izatea; hau da, mutil zaharragoa panpinarekin eta neskatila txikia baloiarekin jolasten aritzea, orduan, ipuinean ikusten dugun irudia sexista da.

#### **Adibidearen azalpenak:**

- Neskek zaintza lanak egiteko rola izaten dute bere gain, neska izate hutsagatik. Jostailu hori bakarrik eskaintzea neskatilei sexista da, edota ipuin/liburuetan panpinekin jolasten bakarrik irudikatzea ere sexista da. Areagotu egiten dituelako genero-rolak.
- Mutilek eremu publikoa erabiltzeko eta okupatzeko joera eta gizartearen babesa dute rol moduan, mutil izate hutsagatik. Jostailu hori bakarrik eskaintzea mutilei sexista da, edota ipuin/liburuetan mutilak baloiekin eta kanpo espazioan gehienbat irudikatzea ere sexista da. Areagotu egiten dituelako genero-rolak.
- Mutil zaharragoa panpinarekin jolasten ikustea arraro egiten bazaizu, zure pertzepzioa sexista da. Mutilei egozten zaizkien genero-rolari aurre eginez, zaintza-jolasak ere gusta dakizkielako mutilei.
- Neskatila txikiak baloia badu jostailu gustukoena eta hori arraro egiten bazaizu, zure pertzepzioa sexista da. Neskei egozten zaizkien genero-rolari aurre eginez, mugimenduko jolasak eta kanpo eremua okupatzen duten kirolak gusta dakizkielako neskei.

Sexismo egoerak atzeman dituzten ala ez (Bai/ez) aipatu beharko dute errealitatearen azterketa egiteko taulan, horren inguruan hausnartu eta eztabaidatu ostean (inbertsioaren araua erabiliz, esaterako).

## 2) Nola identifikatu genero-estereotipoak?

Kultur baliabideetan genero-estereotipoak erreproduzitzen dira maiz eta oso barneratuta eta naturalizatuta ditugunez, kosta egiten da oro har horietaz jabetzea. Anlisi horretan lagungarri izango den fitxa hau erabilgarria da pelikula, liburu edo bideo-jokoetan ematen diren genero-estereotipoak elkarrekin identifikatzeko.

Genero-estereotipoak	
Neskak	Mutilak
Edertasuna	Gihartsua
Argaltasuna	Sendotasuna
Menpekoa	Autonomoa
Zalantza	Ziurtasuna
Adeitsua	Autoritatea
Eremu pribatua	Eremu publikoa
Heterosexualitatean, objektu moduan da erakargarria (besteen desioa pizten duena)	Heterosexualitatean, subjektu moduan da erakarra (desioa duena)
Ahula	Indartsua
Bestearen ongizatea berearen gainetik	Bere ongizatea bestearen gainetik
Arduratsua	Arduragabea
Serioa	Barregarria
Gutxietsia	Gainbaloratua
Zaintza-ardurak	Norberaren-gozamena: aisialdia
Natura	Kultura
Gorputza	Intelektualitatea
Emozioak	Arrazoa

Zerrenda horretan agertzen diren genero-estereotipo adibide guztien artetik (eta taldean agertu daitezkeen beste adibideen artetik), ikus-entzunezkoan zein ala zeintzuk atzeman dituzten aipatu beharko dute errealitatearen azterketa egiteko taulan.

### 3) Nola identifikatu genero-rolak?

Sistematikoki genero bakoitzari funtzio eta rol konkrituak esleitzen zaizkio, eta zentzu horretan, kultur baliabideetan emakume eta gizonak zein lanbidetan aurkezten zaizkigun azaltzea desberdintasun horietaz jabetzeko ariketa interesgarria da.

Esaterako, gizonen lanbideak hobeto baloratuta daude bai sozialki eta baita ekonomikoki ere, emakumeenekin alderatuta. Horretaz gain, dohain egiten diren zaintza lanen zama gehiena emakumeena da. Hori aurrez ematen den sexismoaren ondorio zuzena da, soldata eta langileen baldintzetan eragin zuzena izanik.

Genero-rolak	
Lanbide feminizatuak	Lanbide maskulinizatuak
Erizaina	Medikua
Azafata - hegaldi laguntzailea	Pilotua
Jostuna	Goi mailako joskintza (alta costura)
Etxeko sukaldaria	Goi mailako sukaldaritza (alta cocina)
Etxeko lanak	Etxetik kanpoko lana, profesionala
Garbitzailea (etxeak, instituzioak, portalak...)	Garbitzailea (karreterak, kaleak...)
Garraio publikoen erabiltzailea	Txoferra (autobusa, taxia, trena...)
Harrera	Zuzendaritza
Modeloa	Kirolari profesionala
Saregileak	Arrantzaleak
Marrazkilaria	Margolaria, pintorea
Ile-apaintzailea	Auto-mekanikaria
Dendaria	Ostalaria
Gizarte zerbitzuetako langilea	Arkitektoa, ingeniaria

Zerrenda honetan agertzen diren genero-rol adibide guztien artetik (eta taldean agertu daitezkeen beste adibideen artetik), ikus-entzunezkoan zein ala zeintzuk atzeman dituzten aipatu beharko dute errealitatearen azterketa egiteko taulan.

#### 4) Nola identifikatu indarkeria sexista egoerak?

Indarkeria sexista mota ezberdinak izendatzea garrantzitsua da, bakoitzaren existentziaz konturatzeko. Jabetze ariketa egiteko segidan aurkezten dugun indarkeria sexista moten taula elkarrekin lantzea garrantzitsua da, talde bezala kontzientzia hartzeko: indarkeria sexista mota guztiak indarkeria bezala kontsideratzen ditugu? Guztiak ezagutzen ditugu?

INDARKERIA SEXISTA	
Ageriko indarkeria	Indarkeria ikusezina
Irainak	Umilazioa
Oihua	Mespretxuak
Mehatxuak	Erruztatzea
Eraso fisikoak	Gutxiespena
Sexu-erasoa	Ignoratzea
Bortxaketa	Inbisibilizatzea
Erailketa	Umore eta txiste matxistak
	Hizkuntza sexista
	Kontrola
	Anulazioa
	Txantaia emozionala



### 8.3. Hausnarketak sustatzeko galderak

Errealitatearen azterketa sakona egin ondoren, aztertutakoaren gainean hausnartzeko, ideia propioak garatzeko, iritziak eraikitzeko... unea heldu da. Jarraian, aztertutako kultur baliabidearen gainean hausnarketa horiek sustatzeko galdera sorta bat proposatzen dugu:

- Zein sentsazio piztu dira zugaran?
- Zein ahulgune eta indargune ditu protagonista neskek?
- Zein ahulgune eta indargune ditu protagonista mutilak?
- Neska eta mutilek ahulgune berak dituzte?
  - Desberdintasunak badituzte, generoagatik sortzen dira desberdintasun horiek?
- Neska eta mutilek indargune berak dituzte?
  - Desberdintasunak badituzte, generoagatik sortzen dira desberdintasun horiek?
- Identifikatuta sentitzen zara neska izanik, neska protagonistarekin? Eta mutil izanik, mutil protagonistarekin?
  - Nola irudikatu dira neska/mutilen gorputzak?
  - Nola irudikatu dira neska/mutilen janzkerak?
- Protagonistaren batek hitzez ala ekintzez:
  - Genero-estereotipoei aurre egin die?
  - Genero-rolari aurre egin die?
  - Indarkeria sexista motaren bati konponbiderik eman die?
- Zuk zer egingo zenuke protagonistek jasan ala eragin dituzten sexismo egoerei aurre egiteko

# 9

## Ariketak landu osteko ondorioak

### 9.1. Ondorioak osatzeko argumentuak hezitzaileentzat:

#### **Neska eta mutilen kopuru desorekatuak:**

Normalean neska protagonista gutxiago izaten dira liburu, ipuin, marrazki bizidun, serie eta pelikuletan. Izan ere, gehienetan, mutil talde bat izan ohi da protagonista, eta euren artean neska bat ala bi, gehien jota, agertzen dira.

Mutilak gehiago izateaz gain, hobeto ordezkutzen dituzte mutilen errealitate guztiak (gorputz aniztasuna, izaera aniztasuna, jatorri aniztasuna, etab.), baina, nesken kasuan, gutxi agertzen direnez, ez dute nesken errealitate anitza ordezkutzen, bakarrarena baizik.

Horrez gain, mutil protagonistak, neska zein mutilentzako dira erreferentziazko ereduak (kopuruz eta protagonismo mailaz gehiago direlako mutilak). Baina, emakumeak soilik neskatoentzat dira erreferentziazko eredu (gutxietsi egiten direlako neskek, eta ondorioz, mutilei ez zaizkie erreferentziazkoak iruditzen; neskei soilik).

#### **Maitasun erromantikoa:**

Maitasun erromantikoaren kontzeptuak bikote harreman heterosexualetan du oinarria, neska eta mutilen artean ematen diren botere-harremanetan, hain zuzen ere. Mutilek nesken gaineko kontrola hartzea, neskei askatasuna moztea, bikote harremana bakarrik eduki nahi izatea (lagunarteko harremanak moztera behartuz), eta printze urdina ala laranja erdia behar denaren uste okerrak dira bere ardatzak. Honen kontrara, neskei, norberaren bizitzak garrantzia duela; norberaren gustu eta beharrak asetzeko gai direla, ez dutela bikote-mutil baten beharrik pozik izateko eta familia heteronuklearra ez dela euren patua izan behar adierazi behar zaie, besteak beste. Mutilei, berriz, neskek ez direla euren menpeko maitaleak; nesken egitekoa ez dela mutilak erakartzea eta ez dutela inor behartu behar maitasun kontuetan adierazi behar zaie, besteak beste.

#### **Genero-estereotipoak:**

Kultur baliabide askotan neska eta mutilen izaerak eta jarrerak estereotipatuak egon ohi dira, eta nagusitzen diren estereotipoak hauek izaten dira: nesken kasuan ahulak, apalak, lasaiak eta

menpekoak direnaren ustea gailentzen da. Askotan euren gorputzak dira euren izaerak baino protagonismo handiagoa hartzen dutenak: edertasuna, argaltasuna, moda ala apaingarri nabarmenak erabili ohi dituztelako, eta gainera, jendarteak ere edertasun kanon batzuen barruan kokatzea exijitzen diete; bestela bazterketa soziala jasan dezakete, hala nola, depilatzen ez badira. Nesken kasuarekin jarraituz, jaiotze momentutik markatzeko ohitura oso hedatua dago jendartean: belarritakoekin bitartez. Belarritakoekin “neska” dela markatzeaz gain, edertasunaren betebeharraren zama ere jartzen zaie haur jaio berri horiei. Mutilen kasuan, aldiz, indartsuak, ozenak, mugituak eta independenteak direnaren ustea gailentzen da. Euren gorputz aniztasuna oso onartua dago, txikitatik agure egiten diren arte, argalak, gizenak, tripadunak, burusoilak, ilezuriak... izan daitezke eta, oro har, guztiek dute onarpena jendartean eta ez dute modu batekoak ala bestekoak izateagatik gutxiespenik jasotzen, ala bazterketa sozial nabarmenik ere ez.

### **Indarkeria sexistaren naturalizazioa:**

Sexismoa eta indarkeria sexista jendartean errotuta dauden jarrerak dira, eta naturalizatuta egoteak zaildu egiten du honekiko prebentzioa. Hezitzailearen esku geratzen da, gida honetan proposatzen diren dinamikez gain, egunerokoan suerta daitezkeen jarrera, egoera ala hitz sexistei erantzun egoki bat ematea. Hau da, ezinezkoa da bakoitzaren ingurunean ematen diren egoera sexista guztiak aurreikustea eta aurrez lantzea, baina, hezitzaileek begirada hau sendotzen baduzue eta pixkanaka praktikan jartzen hasi, ziur eraldaketarako ideia propioak sortuko zaizkizuela zuengandik.

### **Ahizpatasuna eta elkartasuna:**

Ahizpatasuna neska eta emakumeen arteko elkartasuna da: elkar sinestea eta laguntzea. Genero-estereotipoen bitartez nesken arteko etsaitasuna sustatzen da, inbidiak eta gaizki esanak ohiko izanik nesken artean. Uste oker horri aurre egiteko, ahizpatasuna landu behar dute neskek, eta areriotasunak bazterrean utziz, elkarrekin aurrera egitea lortu behar dute.

Kontzeptu horien inguruan hausnartzeko proposamena egiten dugu, izan ere, sexismoari aurre egiteko gakoetako batzuk dira. Hau da, sexismoaren eta indarkeria sexistaren egoerek jarrera oldarkorak izan ohi dituzte, baina, jarrera oldarkor asko hitz egitearen, laguntasunaren, konfidantzaaren eta elkartasunaren bitartez samurtzen dira. Horregatik, egunerokoan ahizpatasuna eta elkartasun baloreak ohiko bilakatzen badira, sexismoa ekiditeko prebentzio lan handia egiten ariko dira neska-mutilak. Prebentzian urrats hori emateko, beraz, garrantzitsua da adin honetan bi kontzeptu hauetaz hitz egiten hastea; aurrerago suerta daitezken egoera sexisten aurrean konponbiderako giltzarria izango baitira.

## 9.2. Ondorioak eraldaketarako bidea:

Taldean orain arteko ibilbidea egin ondoren (gaiaren aurkezpena, errealitatearen azterketa, hausnarketa eta eztabaidak eta ondorioak ateratzea), banakako eta taldeko ikuspegia oso landuta iritsiko zarete puntu honetara. Orain, egindako lan hori guztia, aplikazioan islatzeko unea da: aztertu duzuen kultur baliabideari dagokion fitxa orokorra sortzekoa (app-eko katalogoko eduki berri bat sortzekoa, alegia) eta bere inguruan sortu diren balorazio ezberdinak egiteko ere bai.

Azken urrats honetan laguntzeko balorazio baten adibidea azaltzen dizuegu segidan.

<b>Aukeratutako kultur baliabidea:</b>	<b>Kontrako eztaarritik</b> liburua
<b>Aplikazioan egiten diren balorazio guneko galderak:</b>	
<b>Maitasun erromantikoa du oinarri liburuak?</b>	Ez; baina, zeharka agertzen da.
<b>Emakume eta gizonen arteko harremanak nolakoak dira?</b>	Emakumeek bertsolaritzan gizonengandik jasan dituzten sexismo eta indarkeria sexisten egoerak mahaigaineratzen ditu. Gizonengandik jasandako botere-harremanak azaleratzen dira, eta emakume ugarik jasandako egoera anitzak multzoka sailkatuta aurkezten dira.
<b>Nolakoak da pertsonaia nagusiaren izaera genero ikuspegitik?</b>	Pertsonaia nagusiak emakume bertsolariak dira, eta euren bizipenak euren ahotatik kontatzen dituzte. Emakume bertsolari hauek hainbat genero-estereotipo gainditzen dituzte, bertsolari izate hutsagatik: plaza publikoan abesten dutelako, jendaurrean gai feministen inguruko ideiak azaltzen dituztelako, etab. Horrez gain, liburu osoa hausnarketa eta eztabaida aberasgarri bat da emakumeen ahalduzeari dagokionez, orain artean argitaratu ez diren baina denen ahotan egon diren gaiak aipatzen dituelako.

Ikusten duzuen bezala, balorazioan egiten diren galderak ez dute zuzenki saiakera liburuen edukiekin bat egiten, baina, hezitzailearen lana izango da gazteekin galdera horiek moldatzeko tartea hartzea, eta erantzun sakonak eta aberasgarriak idazten laguntzea, den motako kultur baliabidea dela.

# 10

## Pauso erronka

### Ikasturte batean honako erronka betetzera animatzen zaituztegu:

**Pauso erronka!**

**Pauso app-era 5 eduki berri**

Pauso erronkaren bitartez, kultur baliabideak genero ikuspegiz aztertzeko ohitura hedatu nahi dugu. Horretarako, talde bakoitzak bere ikasturteko plangintza egiteko proposamena luzatzen dugu. 5 kultur eduki elkarrekin ikusi, irakurri ala jolastu ondoren, talde mailako eztabaida eta hausnarketa sortzeak, sexismoaren eta indarkeria sexistaren gaiak mahai-gainean jartzea naturalizatuko du. Horrela, gazteen ikuspegia zabaltzea eta prebentzioa modu errealean lantzea lortuko da.

Orri honetan, erronka betetzeko plangintza adibide bat luzatzen dizuegu, baina, talde bakoitzaren errealitatea zein den baloratu ondoren ondorengo orrian daukazue bakoitzaren beharren arabera betetzeko moduko taula. Inprima ezazue taula hori, jarri denek ikus dezaketen lekuan, eta animatu zaitetzte erronka betetzera!

Pauso erronka					
Eduki mota (bideo-jokoa, liburua, pelikula)	Izenburua	Ekintza	Landu nahi den berdintasun-gaia	Aurreikusitako data	Eginda? (Bai/Ez)
Pelikula	Lady Bird*	Elkarrekin ikusteko bideo-foruma	Nerabegaroko bikote-harremanak, heterosexualitatea eta maitasun erromantikoa	Urriak 15	Bai
Pelikula	Brokeback mountain*	Norberak ikusi eta ondoren taldean solasaldia	Harreman homosexuala	Otsailak 18	Bai
Liburua	Kontrako eztarritik	Norberak irakurri eta ondoren taldean solasaldia	Bertsolaritzan emakumeek jasaten dituzten egoera sexistak.	Abenduak 3	Bai
Liburua	Nahiago nuke mutila banintz	Norberak irakurri eta ondoren taldean solasaldia	Sexualitatea, hilekoa eta pertsonen arteko harremanak.	Apirilak 14	Bai
Bideo-jokoa	Horizon: zero down	Norbera jolastu eta ondoren taldean solasaldia	Nesken irudi hipersexualizatuak.	Ekainak 10	Bai

\*euskaraz ikusteko aukera dago: [www.euskal-encodings.webgunearen](http://www.euskal-encodings.webgunearen) bitartez.



## Jarraipena egiteko metodologia

Gazteek individualki egiten duten lanketaren eta hezitzailearen lanketaren jarraipena egiteko ebaluazio fitxak daude jarraian. Tresna hauen bitartez, taldeak egiten dituen urratsak baloratuko dira eta etorkizuneko urratsak aurreikusteko hutsune eta indarguneak identifikatzekoa.

### 11.1. Gazteen lanketaren jarraipena egiteko ebaluazio fitxa

Helburuak zenbateraino bete direnaren jarraipena egiteko, margotu egindako saio bakoitzari dagokion llaukitxoak kolore hauekiko batean: **gorriz** (ez badu helburua bete, hau da, sexismo ala indarkeriazko jarrerak baditu), **horiz** (urrats esanguratsuak izan baditu, hau da, hausnarketarako jarrera erakusten badu), eta **berdez** (helburua bete badu, hau da, hausnarketez gain, berdintasun jarreraren eragile bada).

GAZTEEN IZEN-ABIZENAK	EGINDAKO SAIOAK									
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10

## 11.2. Hezitzaileen lanketaren jarraipena egiteko ebaluazio fitxa.

Saioa	Landu denaren azalpena	Lantzeke geratu dena eta zergatia	Saioaren ala gaiaren indarguneak	Saioaren ala gaiaren ahulguneak	Oharrak
1					
2					
3					
4					
5					
6					
7					
8					
9					
10					





## Sakontzeko edukiak

### Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako edo sustatutako edukiak:

#### Hezkidetzeta eta indarkeriaren prebentzioari buruzkoak

- **“Betaurreko moreak gida”** Fresnedo, I., Gabilondo, J., Donostia-San Sebastián, Gaztematika. Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako Sistema, Arremanitz Kooperatiba, 2018 <https://www.gipuzkoa.eus/documents/4160367/6834071/Betaurreko-moreak-gida.pdf/992cfac7-976b-980d-af59-1deddd0f786f>

#### Beste eduki batzuk:

- **“Genero desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan”** Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Saila. Ianire Estébanez, Norma Vázquez. 2013  
[http://minoviomecontrola.com/wp-content/uploads/2012/10/sexismoa\\_gizarte\\_sareetan\\_ianire\\_estebanez.pdf](http://minoviomecontrola.com/wp-content/uploads/2012/10/sexismoa_gizarte_sareetan_ianire_estebanez.pdf)
- **“Ikastetxeetan genero prebentziorako esku liburua”** Eusko Jaurlaritza, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Hezkuntza Saila. Ianire Estébanez, Norma Vázquez.  
[https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn\\_doc\\_convivencia/eu\\_def/adjuntos/coeducacion/9202016004e\\_pub\\_ei\\_genero\\_indarkeria\\_prebentzioa\\_e.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/inn_doc_convivencia/eu_def/adjuntos/coeducacion/9202016004e_pub_ei_genero_indarkeria_prebentzioa_e.pdf)
- **“Genero-berdintasunean hezteko gida”** Familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat” Luixa Reizabal Arruabarrena, Ed. UEU 2016

- **“Begiadak, esperientziak, saretzeak”** Hezkidetza eta pedagogía feministen kongresutik ateratako liburuxka. Calcuta Ondoan eta Ikertze <https://hezkidetza.calcutaondoan.org/es/materiales/>
- **“Escuelas libres de violencias machistas”** Kika Fumero, Marian Moreno, Carmen Ruiz Repullo. Col-leció estudis de violencia de género. Ediciones UIB. 2016
- **“Coeducación y prevención temprana de la violencia de género”** ESSOMBA, Miguel Ángel GAIRÍN SALLÁN, Joaquín RIFÀ DACHS, Judit SABAN VERA, Carmen TOMÉ GONZÁLEZ, Amparo. Ministerio de Educación y Ciencia 2007  
<https://sede.educacion.gob.es/publivena/PdfServlet?pdf=VP12263.pdf&area=E>

#### Webgune interesgarriak:

- **Gipuzkoako Foru Aldundia, Berdintasunerako Organoa:** <https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/berdintasuna/hasiera>
- **Beldur Barik:** <https://www.beldurbarik.eus/eu/>
- **Emakunderen glosarioa:** [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas\\_evaluaciones\\_2/eu\\_def/adjuntos/GLOSARIO\\_DEFINITIVO\\_webeusk.htm#\\_Toc336607135](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/politicas_evaluaciones_2/eu_def/adjuntos/GLOSARIO_DEFINITIVO_webeusk.htm#_Toc336607135)
- **Bibliografia iturri gehiago:** <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albistea/2019/gazteekin-indarkeria-matxista-prebenitzeko-estrategiak-tailerraren-inguruko-bibliografia/>

